



BALIARRAINGO UDALERRIAN BIZITZA BERRIAK EGITEKO ASMOA

Baliarraingo udala eta Hirigintza batzordea , Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala bultzatzen ari dira. Eta aldaketa honetan , bizitza berriak eraikitzeko eremua aurreikusten ari dira.

Hala ere , ezinbestekoa zaigu elkar lana egitea eta Baliarrainen beren eguneroko bizitza egiteko asmoa eta ilusioa dutenek zenbat diren jakitea . Horregatik , udalak , Hirigintza batzordearen proposamenak aurrera eramanez , deia hau egitea erabaki du :

Baliarraingo udalerrian , eguneroko bizitza, bertan egiteko asmoa edo ilusioa aurreikusten duenak udalean jakinaraztea egokia ikusten da , interesatuen artean bilera bat egiteko , eta guztion artean geroa adosteko .

Aldi berean ,Baliarrainen bertan bizitzen zaretenoi eskatu nahi zaizue , zuen sendietako norbait , gaur egun Baliarraindik kanpo bizi bada ere, informazio hau beraiei helaraztea , mesedez.

Beraz , interesik baduzu , izena eman ezazu , udaletxera deituaz , bulego orduetan , 2016EKO MAIATZAREN 20RAKO .

Eskerrikasko

Baliarraingo udala eta Hirigintza batzordea .